


## MARTIN ARPIDEKOA



Lisboako  
portua  
(1588)

**P**ilotua (Lezo, ? - Lisboa, 1593). Maria Alkaiagakoa lezoarrarekin ezkondu eta seme bat ukan zuen bederen, Juanes izenekoa.

Anitz urtetan erregeren gerra-ontzietan ibili izan zen, hain zuzen ere Gipuzkoako ontzian, bertako buru Antonio Urkiolakoa zelarik. Batik bat Bergara kapitainaren naoa eta San Matias galeoia aitzinatu zituen, Juan Alzegakoa almirantea lagun.

Lisboako portuan hil zen 1593an, San Matias galeoian zebilela. Hala, hiri hartako elizan ehortzi zuten.

Bestalde, Lope Isastikoak oso antzatsutzat zeukan, eta bere liburuan agerrarazi zuen, pilotuez diharduen atal berezian (ikus: "Compendio Historial de Guipúzcoa", 1626an idatzia).

**LANDER ZURUTUZA**

---

ITURRIA: Hondarribiko Udal Agiritegia: E/7/1/5/9.